

# Buruan daukagun jolastokia

Kilometro bat dago Lezamako udaletxetik Kurtzearaino. Kilometro bat euri zegoen gaur, LEUKOren bigarren bilera ospatzera gindoazela, tarteka bakarrik baina litroka. Oinez joatekoak ginen Kurtzearaino, bertatik bertara lan egitera, baina azkenean LEUKOren egoitzan geratu gara, Kultur Aretoan, goxo-goxo, hori ere esan beharra dago.

Lezamako Alkatearen lehen eskaria geneukan gaur mahai gainean: Kurtzean umeentzako parke berri bat egiteko ideiak edo irizpideak ematea, lan hori aurrera eramateko euren proiektuak aurkeztuko dituzten enpresek kontutan har ditzaten. Txikerrentzat eta handiagoentzat izan behar du parkeak, eta dagoen aurrekontua ere jakin badakigu.

Proposamen ezberdinak jasotzea maite dugu Umeen Kontseiluetan, urrutira joan nahi dugu umetasunean, Lezamako herriari benetan umeen begirada ekarri nahi badiogu. Leku komunitatik alde egin eta haratago joatea dugu beraz helburu.



Joko bidaiari batekin hasi dugu saioa: umeak binaka jarrita, batak begiak estali eta besteak eskua eman. Oinez hasi eta gidariak arrisku guztiak ohartarazten dizkio begiak estalita dituenari. Baina horrekin batera, nondik nora doazen kontatzen dio, eta errelatua asmatua da, eta leku fantastikoetan barrena darama ibiltari itsua.

Jarraian banaka jarri eta bakoitzak jolasteko leku ideal bat margotzeko eskatu diegu. Ez jolas-parke bat, baizik jolasleku bat, inolako mugarik gabe. Zirkuluan jarrita, margotutakoei buruz mintzatu gara (noriak, piszinak, koltxonetak, montañarrusak,

txirrista arriskutsuak...), eta hortik jada Kurtzeako jolas parkearen eskariari heldu diogu: lekuaren argazki batzuk ikusi eta zenbait irizpide adosten saiatu gara. Nolakoa nahi dugun zorua, ze eraikin mota nahi ditugun, ze materialekin eginikoak...

Irizpide batzuk adostea lortu dugu denon artean: Zorua belarrezkoa izatea nahiago dute gomazkoa baino; Tirolinea bat egotea ezinbestekotzat jotzen dute; Txirrista handia eta Kolunpioak ere oso gustoko dituzte; Sokazko egiturak ere bai, eta adina guztientzako balio dute; baita Egurrez egindako egiturak ere. Bestalde, jolas parkean iturri bat egon dadila ere eskatu dute LEUKOko umeek.

Gero, jolas parkeko gailuei buruzko katalogoak atera eta markagailuekin gustokoen dituztenak markatu dituzte. Jon Ander Aurrekoetxea Lezamako Alkatea etorri da orduan. Denon artean adostutako irizpideak partekatu ditugu berarekin. Katalogoak ere elkarrekin behatu dituzte umeek eta Alkateak, ezaugarri ezberdinak komentatuz. Informazio guztia besapean eraman du Alkateak Udaletxera. Hurrengo bilera irailean ospatuko dugu, uda ostean.

Hemen ikusi eta jaitsi ditzakezue [bilera honetako argazki guztiak](https://flic.kr/s/aHsmEg1x7C).

<https://flic.kr/s/aHsmEg1x7C>

## Ese lugar de juego que tenemos en la cabeza

Hay justo un kilómetro desde el ayuntamiento de Lezama hasta Kurtzea. Un kilómetro de lluvia es lo que había hoy a la hora de celebrar la segunda reunión de LEUKO, el Consejo de la Infancia de Lezama. Pensábamos ir caminando hasta Kurtzea para trabajar in situ, pero hemos decidido quedarnos tan a gustito en el Kultur Aretoa, sede de LEUKO.

Teníamos sobre la mesa la primera petición del Alcalde de Lezama: aportar algunas ideas y criterios para la construcción de un nuevo parque infantil en Kurtzea, con el fin de que hayan de ser tenidas en cuenta por las empresas que presenten sus proyectos para el lugar.

En los Consejos de la Infancia nos gusta recibir propuestas diferentes, ese es su fin, alejarnos de los lugares comunes e ir más allá, profundizando en la mirada infantil, en lo niño aplicado a la construcción de nuestro pueblo, Lezama.

Hemos comenzado la sesión con un juego viajero: colocados por parejas, una se venda los ojos y la otra le da la mano. Comenzando a caminar, el lazarillo va advirtiendo de todos los posibles peligros al ciego. Pero a la vez le va narrando por donde transitan... y el relato es inventado, y viajan a través de lugares fantásticos.

Seguidamente, trabajan individualmente pintando cada uno un lugar ideal para jugar, no un parque infantil sino un lugar de juegos infinitos. Sentados en círculo, comentamos lo aparecido (norias, piscinas, peligrosos toboganes, colchonetas, montañas rusas...) y de ahí pasamos de lleno a trabajar sobre el parque de Kurtzea. Vemos algunas fotos del lugar -tods lo conocen perfectamente- y tratamos de establecer unos parámetros comunes de lo que queremos: qué tipo de suelo, de construcciones, de materiales...

Conseguimos establecer unos criterios comunes: prefieren que el suelo sea de hierba y no de goma; es imprescindible que haya una Tiroлина; les molan mucho también los Toboganes altos y los Columpios; las construcciones de Cuerdas les flipan, y sirven para todas las edades; también las de Madera. Por otra parte, las niñas y niños de LEUKO piden que haya una fuente junto al parque.

Por último, sacamos unos catálogos sobre construcciones para parques infantiles y marcan con marcapáginas aquellas que más les gustan. Estamos en ello cuando llega el Alcalde Jon Ander Aurrekoetxea. Entonces compartimos con él los criterios comunes de los que hemos hablado, y vemos con él los catálogos, comentando juntos las diferentes opciones y características. El Alcalde se ha llevado toda esa información bajo el brazo al Ayuntamiento. La próxima reunión se celebrará en septiembre, pasado el verano.

Aquí podéis ver y descargar todas las fotos de esta reunión.  
<https://flic.kr/s/aHsmEg1x7C>

